



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2016ko maiatzak 5
Ordua: 19:00 – 19:45
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gelan

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Alazne Lafragua Ureta
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba.

Ez dira bertaratu:

Jose Luis de Valle Duque

M^a Ascensión Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2016ko apirilaren 7an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkate jaunak hartu du hitza: Ezer esateko baduzue...

Oharrik egin ez denez, 2016ko martxoaren 10ean egindako saioko akta bozkatu da:

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

2. Maria Luisa Arenaza andreak eta Raul Virizuela Aguirre jaunak eskatutako luberriei alta ematea.

Alkatea: irizpena irakurriko dut.



<<2016ko apirilaren 27an egindako saioan Lurraldeko Informazio-batzordeak emandako irizpena.

Maria Luisa Arenaza andreak eta Raul Virizuela Aguirre jaunak eskatutako luberriei alta ematea.

2016ko apirilaren 27an egindako saioan Lurraldeko Informazio-batzordeak irizpen hau eman zuen:

“Artziniegako Udalak, 2014ko uztailaren 14an egindako ezohiko saioan, Erabilera Publikoko Mendietan luberrien aprobetxamendua berrikusi eta arautu zuen.

IKUSIRIK luberrien esleipena bost urterako egin zela, hau da, 2019ko uztailaren 13ra arte

KONTUAN HARTUZ 2016ko apirilaren 26an Maria Luisa Arenaza Campok eskaera aurkeztu zuela adieraziz hogeita hamabost urtez 2. poligonoko 486 partzela eta 485 poligonoko zati bat aprobetxatu dituela eta luberrien zerrendan alta emanda zegoela uste zuela, egoera horretan egon gabe.

KONTUAN HARTUZ 2016ko apirilaren 27an Raul Virizuela Aguirrek eskaera aurkeztu zuela La Encina Mendilerroan kokatutako luberria (3. poligonoko 292 partzela, gutxi gorabehera 6,95 hektareakoa, atxikitzen duen katastroko planoaren arabera) erabiltzea aitortzeko eskatuz.

2016ko apirilaren 27an elkartuta Lurraldeko Informazio-batzordeak irizpen hau eman zuen:

AKORDIO-PROPOSAMENA:

LEHENIK.- 2014ko uztailaren 14ko ezohiko saioan onartutako zerrendara luberritze hauek gaineratu eta onartzea:

Izena	Dokumentazioa	Errolda	Adina	Partzelak
Maria Luisa Arenaza	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela	bai	62	Pol2-486 0,244 Hektarea Pol2-486 0,2984 Hektarea
Raul Virizuela Aguirre	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	bai	51	Pol3- 292 6,95 Hektarea

BIGARRENIK.- Aprobetxamendurako epea, gainerako luberrietan bezala, 2019ko uztailaren 13an amaituko da.

HIRUGARRENIK.- Azken lau urtetako aprobetxamendugatiko ordainagiriak igortzea, izan ere, bi titularrek aprobetxatu egin dituztela onartu dute.

CUARTO.- Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari jakinaraztea.>>



Alkatea: Baduzue ezer esateko?
Oharrik egin ez denez, bozkatu egin da.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).
Onartuta geratu da.

3. 2015eko fakturen kreditua estrajudizialki aitortzea.

<<2016ko apirilaren 27an egindako saioan Ogasun Informazio-batzordeak emandako irizpena

Kontuan hartuz 2016ko apirilaren 26an Idazkaritzak 2015eko ekitaldiko hurrengo kredituak estrajudizialki aitortzeko prozedurari eta legeria aplikagarriari buruz igorritako txostena:

Hirugarrena: ORKATZ S.L. IFK B01469774

Fak. 115

Fakturaren igorpen-data 2015eko uztailak 17

Kontzeptua: Mendietako bidean sastrakak kentzea.

Zenbatekoa 275,00 €.

Oharra: faktura 2016ko martxoaren 3an sartu zen udaletxe honetako erregistrora (574 zenbakiarekin)

Hirugarrena: ALARA IFK 30609922G

Fak. 15/222

Fakturaren igorpen-data 2015eko abenduak 3

Kontzeptua: Berdintasuna Beldurbarik. Sariak ordejarri eta kudeatzea Publiko nerabe eta gaztea

Zenbatekoa 40,66 €.

Oharra: faktura 2016ko apirilaren 8an sartu zen udaletxe honetako erregistrora (851 zenbakiarekin)

Kontuan hartuz 2016ko apirilaren 26an Kontu-hartzaitzak igorritako txostena, aitorten hori zilegi zela adierazten zuena.

Kontuan hartuz Alkatetzak horri dagokionez egindako proposamena, eta ikusirik apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 60.2. artikulua, 2016ko apirilaren 27an Ogasun arloko Informazio-batzordeak erabaki du Udalbatzari proposatzea hurrengo

AKORDIOA

LEHENIK: *Hurrengo kredituen aitortzea, 2015. ekitaldiari dagokionak:*

Hirugarrena: ORKATZ S.L. IFK B01469774

Fak. 115

Fakturaren igorpen-data 2015eko uztailak 17

Kontzeptua: Mendietako bidean sastrakak kentzea.

Zenbatekoa 275,00 €.

Oharra: faktura 2016ko martxoaren 3an sartu zen udaletxe honetako erregistrora (574 zenbakiarekin)



Hirugarrena: ALARA IFK 30609922G
Fak. 15/222
Fakturaren igorpen-data 2015eko abenduak 3
Konzeptua: Berdintasuna Beldurbarik. Sariak ordejarri eta kudeatzea Publiko nerabe eta gaztea
Zenbatekoa 40,66 €.
Oharra: faktura 2016ko apirilaren 8an sartu zen udaletxe honetako erregistrora (851 zenbakiarekin)

BIGARRENIK. 2016ko ekitaldiko Aurrekontuan zordunduz, dagokion kreditua aplikatzea, "Errepide eta bideetan sastrakak kentzea" izeneko 454.210.001 aurrekontu-aplikazioan zordunduz, 275,000 euroko gastuari aurre egiteko eta "Berdintasun arloko Jarduerak" izeneko 230.226.008 aurrekontu-aplikazioan zordunduz, 40.66 euroko gastuari aurre egiteko, zeintzuen gainean dagokion atxikipena gauzatu zen. Artziniegan, 2016ko apirilaren 27an>>

Alkatea: joan den urteko bi faktura dira, bata 2015eko uztailaren 17koa eta bestea 2015eko abenduaren 3koa Bi faktura dira, bat berrehun eta hirurogeita hamabost eurokoa, Mendietako bidean sastrakak kentzekoa, eta bestea berrogei euro eta hirurogeita sei zentimokoa, sariak ordejarri eta kudeatzekoa, "BeldurBarik" berdintasun arloko kontzeptuan. Bi fakturek teknikarien onespena dute, joan den urtekoak dira, eta horrenbestez Udalbatzan onartzekoak dira. 2016. urtean sartu dira, ez dakit zergatik ez ziren 2015ean iritsi. Ezer esateko baduzue.

Oharrik egin ez denez, bozkatu egin da.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).
Onartuta geratu da.

4. Frackingari buruz herritarren borondatea defendatzeko EH Bildu taldearen mozioa.

Alkatea: irakurri nahi baduzue.

Arkaitz San Jose Martinez: ez du axola, sarrera eman bazaio. Ados, irakurriko dut:

<<Frackingari buruz herritarren borondatea defendatzeko EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioa.

Frackingaren aurkako jarrera errealitatea da udalerrri honetan. Gizarteak argi adierazi du teknika horren aurkako jarrera, izan ere, arrisku larriak dakartza ingurumenean eta giza osasunean eta, aldi berean, energia-aldaketa ezinbestekoa hipotekatu egiten du. Horren erakusgarri da Fracking Ez taldeak bultzatuta Legegintzako Herri Ekimenak udalerrrian izan duen babesa.

Haatik, frackingaren mehatxua ez da desagertu. 103.000 pertsona baino gehiagok bultzatutako legegintzako bideari erantzunez, Eusko Legebiltzarrak frackingaren aurkako Legea onartu zuen 2015eko uztailaren 30ean.

Halere, Espainiako Gobernuak iragarri duenez, Konstituzio Auzitegian lege horren aurkako errekurtso bat aurkeztuko du. Zilegitasunik ez duen jarduneko gobernuak hartutako erabaki hori



ez da maniobra juridiko soil modura balioetsi behar, herritarren subiranotasunaren aurkako mugimendua da.

Are gehiago, Espainiako Gobernuak bere asmoak inposatu nahi ditu bai euskal gizartean eta baita Hego Euskal Herriko erakundeetan frackinga erabiliz baliabide ez konbentzionalak ustiatzeko, legezkotasun osoz hartutako erabaki demokratiko eta herrikoiak zapalduz.

Hori dela eta, EH Bildu Udal Taldeak mozio hau proposatzen du Artziniegako Udaleko Udalbatzan eztabaidatu eta onar dadin:

1.- Artziniegako Udaleko Udalbatzak eskatzen dio Espainiako Gobernuari Eusko Legebiltzarrak onartutako frackingaren aurkako legearen kontrako errekurtoa atzera bota dezala eta euskal erakundeek demokratikoki hartutako erabakiak errespetatu ditzala.

Artziniegan, 2016ko apirilaren 19an.>>

Arkaitz San Jose Martinez: gauza bera euskaraz.

El Alcalde: norbaitek ezer esan nahi badu.

Joseba Elejalde Ribacoba: Bai, gauza bat esan nahi dut. Beno, uste dut hau ingurumenarekin lotutako gai bat dela eta alderdi politiko jakin batzuk alderdikieriaz jokatzeko ari direla hauteskundeetan etekina lortzeko. Ez da Udalaren eskumena, eta ez da erkidegoaren eskumena ere, Espainiako estatuaren eskumena da eta, azkenean, hura izango da gure mendietan dagoen gasa ateratzeko frackingaren teknika baliagarria den ala ez erabakiko duena. Baina bada kontu bat arreta eman didana, asko gainera, hots, azken urteotan asko hitz egin da frackingari buruz, baina Eusko Jaurlaritzak, gaurdaino, ez du egin zitekeen guztia egin, ez EAJ taldearen aldetik ezta gainerako taldeen aldetik ere, ezta? Prentsa-ohar batzuk ekarri ditut. Hala bada, "haustura hidraulikoaren gaia Ibarretxeren gobernuarekin sortu zen. Ondoren, sozialistak izan ziren Shesa izeneko enpresa bat sortu zutenak. Hidrokarburoen Euskadiko enpresa bat da, Eusko Jaurlaritzak kontrolatzen duena, eta hau argi geratzea nahi dut, azpimarratuta, Eusko Jaurlaritzak eta frackingaren industriaren jarduten duten Iparramerikako bi etxek, hain justu, Heiko eta Cambria. Gaur egun hitzarmen hori indarrean da oraindik, legezkoa da oraindik, eta onartuta dago. Gainera, dagoeneko badira zenbait putzuren inguruko onespenezko erakundeak, dagozkion esplorazioekin haste aldera. Une honetan esplorazio-baimena baderatzen du. Gero etorriko litzateke ustiapen-baimena. Baina bitxia da Eusko Jaurlaritzak joan den urtean Arabaren eskari bat onartu zuela, Naturaren Kontserbaziorako Legea aldatzekoa, fracking teknika erabiltzea debekatzeko. Arabako Batzar Nagusietan parke naturaletan frackinga debekatzeko aldarrikatzen zuten. Nahiz eta azkenean, horren murriztailea ez zen formula baten alde egin zen, natura-erreserbak kudeatzeko organoen Lege berriarekin ingurumena kaltetzen duten jarduerak ekidin ditzakete. Haatik, Eusko Jaurlaritzak Lege horrek parke naturaletako putzuak ez eragozteko adierazpena sinatu du, berriki. Horrenbestez, azken batean, joko bikoitza ageri da hor, ezta? Ingurumen Sailak eten egin du Gasteizko mendietako Parke Natural honen sorrera. Haren barnean fracking teknika aplikatzeko bi putzu zeuden Subilla-Gasteizen, hain zuzen, berriro ere Jaurlaritzak eta aurrez aipatutako Iparramerikako bi enpresek sustatuak. Beste adibide bat. Salburuako hezegunetan, Gasteizen, hidrokarburo-ihes ugari izan ostean, babes-perimetro bat finkatu zen. Eusko Jaurlaritzaren lehen zirriborroan lurrazalean eta lurpean erauzte-jarduerak (hau da, frackinga) baztertu egiten ziren. Haatik, Gasteizko Udalarari helarazitako hurrengo zirriborroan lerro horiek ez dira agertzen eta, kasualitatea, inguru horretan ere, Matauku izeneko herrian, fracking-putzu bat dago proiektatuta". Uste dut badela garaia gai hau alderdikieriaz ez erabiltzeko. Uste dut teknika honekin ingurumena errespetatzen den ala ez ikusteko lan egiteko ordua dela, uste dut guztiok norabide berean lan egiteko ordua iritsi dela, ez dugu hona etorri behar mozio batekin, eta ezin dugu leku batean gauza bat esan eta ondoren aurkakoa egin. Nire ustez, frackingaren teknikak abalatu behar dituztenak Industria Ministerioaren txostenak dira, betiere, herritarren segurtasunaren alde eginez. Besterik ez.

Arkaitz San Jose Martinez: ni erabat ados nago zirekin. Uste dut zenbait erakunde joko bikoitzean dabilzala, gauza bat esan eta beste bat eginez. Pentsatzen dut koherentziari dagozkion erreferentziak ez direla EH Bildu taldeari buruzkoak izango. Hau da, hasiera batetik, gure taldeak tokiko mailan nahiz orokorrean, edo erkidegoan, argi dago, edo guk argi dugu, ingurumena zuzenean kaltetzen duen erauzketa-sistema bat dela, efizientzia oso urrikoa dela,



ezdeusa ez esatearren, eta energia-alternatiba ere ez dela, eragiten dituen kalteak alde batera utzirik ez. Are, gu esplorazio-lizentzien aurka ere bagaude, momentuz onartuta daudenak. Are gehiago ustiapen-lizentzien aurka.

Inmaculada Vivanco Retes: gure taldearen aldetik, beste batzuetan bezala, gauza jakina da fracking teknikaren aurkako jarrera izan dugula, eta kasu honetan mozioaren alde emango dugu gure botoa.

Alkatea: ondo da, bozka dezagun orduan.

Kontran:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik(3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

5. Alkatetza-ebazpenen berri ematea

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 2016. urteko 49-71 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du.

Alkatea: ezer esateko baduzue.

Arkaitz San Jose Martinez: nik bai, kontua da badirela bi dekretu, 48. zenbakia eta 63. zenbakia, lizentziarik gabe burutzen diren obrei buruzkoak biak, eta Udalak badu horien berri. Lehenengoaren kasuan egiten ari diren obrak bisitatzeko ebazpena eman zen, eta besterik ez. Hots, obra lizentziarik gabe burutzen ari direla jakinda, gutxienez dekretuan bertan, agian aurreragoko batean agertuko da, lizentzia eskuratzeko betebeharra adierazi beharko da, eta berriro diot, uste dugu lizentziarik eduki gabe burutzen ari diren obrak hautematen badira zigorra ezarri behar dela. Bigarrenengoaren kasuan, egia da aipatzen dela zigorra ezartzeko Legea hor dagoela, baina ez da adierazten zigorra ezarriko den ala ez. Hots, bigarrenengoan, 63. zenbakidun dekretuan, egia da adierazten dela lizentzia eskuratu egin behar dela eta Legearen arabera isuna ezar daitekeela, baina ez da inon jasotzen isuna edo zigorra ipiniko denik. Eta, uste dut ildo horretan aurrerapausoak eman behar direla, izan ere, horren aurrean azkenean gerta daiteke herritarrek lizentziarik ez eskatzea, finean, azkenean obraren berri izaten bada nahikoa izaten da lizentzia eskatzean ordaindu behar litzatekeena ordaintzearekin.

Alkatea: Zuk Joseba zerbait aipatu nahi zenuen?

Joseba Elejalde Ribacoba: 57. zenbakidun Alkatetza-dekretua begiratu dut. Bertan administrazio-dokumentuak itzuli eta zuzentzeko zerbitzua emateko kontratua Komaberri enpresari esleitzen zaiola ebazten da eta arreta eman dit, lehenik eta behin, Alkatetza-dekretuan ez dela kontratu horren zenbatekoa jasotzen. Bada arreta eman didan beste kontu bat, enpresari dokumentazio jakin bat eskatzen zaio 2016ko urtarrilaren 12an eta, ikusten da 2016ko apirilaren 13an, hau da hiru hilabete beranduago eman zuela enpresak dokumentazio hori. Uste dut, eta oker banago Ascenek zuzen nazala, hamar eguneko epea dagoela. Lehenengo, enpresak aurkeztu egin du hasiera batean eskatuko zitzaiena, bigarrenik hiru hilabete behar izan ditu aurkezteko, hirugarrenik dekretu honetan ez da jasotzen kontratu hau lizitazioan zein zenbatekorekin atera zen, bada, uste dut Alkatetza-dekretu hau nahiko hankamotz geratu dela.

Alkatea: beno, agian espediente osoa begiratu beharko da, eta espediente osoarekin dekretua uler daiteke. Uste dut batzorderen batean aipatu dugula izapidea.

Joseba Elejalde Ribacoba: besterik gabe, arreta eman dit, lehenik eta behin, datu hori ez jasotzea eta, ondoren, dokumentazioa eskatu eta hura aurkezteko hiru hilabete behar izatea. Pentsatzen dut hau izapidetzea premiazkoa izango dela, dagozkion itzulpenak egin ahal izateko.



Alkatea: ez, batzorderen batean aipatu izan dugu. Dokumentazioa ez genion Komaberri enpresari urtarrilean eskatuko. Beranduago eskatuko genion.

Joseba Elejalde Ribacoba: paperetan erreparatuz, itxuraz, urtarrilean eskatu ziren. Esaten ari zaren bezala gertatu bada, hitz egingo dugu. Gero, badira beste bi dekretu, 65. eta 66. zenbakidunak, biak proiektuak; 65. zenbakiduna udaletxe zaharrean gaztelekua birgaitzeko proiektua, eta 66. zenbakiduna Barcenako parkingaren proiektua. 65. zenbakidun dekretuan bada murriztapen bat, Emilio Belon Barrios kontratistari esleitzen zaio, eta 14.703 eurokoa izatetik 8.961,51 eurora pasatzen da, eta aparte BEZ zergari dagozkion 1.881,92 euroak. Eta, hurrengoan, 66. zenbakidun dekretuan, Ignacio Pedreira Ruiz de Arcaute jaunari esleitzen zaion proiektuan, ez da murriztapenik. Kasu horretan 8.401,35 euroko zenbatekoa ateratzen zen, eta prezio horretan esleitu zaio proiektua. Eta galdetzen dudana da ez zein irizpide aintzatesten diren hau guztiau kontratatzeko, izan ere, azken batean Belon jaunarekin ia % 50 aurreztu genuen eta bestearekin, Ignacio Pedreira Ruiz jaunarekin, Udalak azkenean...

Alkatea: uste dut bazela hor ere murriztapena, ezta?

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dakit, hemen jartzen duena da, 8.401 eta 8.401, eta 1.764,28 euro BEZ zergakoak eta 1.764,28 euro BEZ zergakoak.

Alkatea: agian akats bat egongo da.

Joseba Elejalde Ribacoba: Ez dakit dekretua ongi ala gaizki egongo den, baina arreta ematen dit, asko, batean ia % 50eko edo %40ko murriztapena egotea eta, bestea oso zehatza izatea. Azken batean, jakin nahi dudana da zein irizpide jarraitzen diren.

Alkatea: bada, ezin daiteke horrela izan, hor akatsa egongo da. Baina Ignacio Pedreiraren proposamena kontuan hartu zen atxikita aurkeztu zuen taldearengatik, proiektuaren erredakzioan proposatu zuen lantaldearengatik. Baina, uste dut murriztapen bat egon zela, ezta?

Arkaitz San Jose Martinez: beno, gaitzen diren partidak handiak dira, biak 18.000 euro baino apur bat baxuagoak dira. Ez dakit zergatik ez den 17.000 gaitzen

Ascension Hormazabal Meabe: prezio hori ematen zigun balioespena genuelako.

Arkaitz San Jose Martinez: Bai, baino gero hemen agertzen da... bai noski, 17.000 badira, bai.

Joseba Elejalde Ribacoba: Balioespe-irizpiderik balego esan dadila zein den, bestela hau ez dago ulertzerik. Eman diezaiotela Beloni edo, bestela, dagokion enpresari...

Alkatea: bai, baina, espedientea ikus dezakegu.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada, begiratu espedientea eta ebatzi zalantza hau, bestela, hau ez dago ulertzerik...

Alkatea: beno, beste ezer?

Arkaitz San Jose Martinez: 51. zenbakiduna, Josebak aipatutako bi proiektuetarako kreditua gaitzen duen berbera da, baina, aldi berean, beste 12.000 euro gaitzen dira obrarako berez, ulertzen dudanez.

Alkatea: bai

Arkaitz San Jose Martinez: hau da, hasierako 55.000 euroak zeuden...

Alkatea: Foru Planak estaltzen ez duen zatiari dagozkionak.

Arkaitz San Jose Martinez: horrenbestez, 55.000 euro, gehi Foru Planeko 122.000 euro, gehi 12.000 euro.

Alkatea: bai, edozein kasutan, kontuak doitu egin beharko dira, izan ere, aldaketa hori egin zenean ez zen aurreikusten igogailuagatik eman diguten berrogeita hamar mila eurotik gorako diru-laguntza. 12.000 euroak ere batu egingo ditut. Halaber, batu egin beharko da..., beno, espedientea ikusi behar dugu. Agian, 52ko diru-laguntza batuta ere, Udalak 12.000 euro jarri beharko ditu. Besterik?

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).



6. Aurrekontu Egonkortasunerako helburua betetzeari buruzko Kontu-hartzailetzaren ebaluazio-txostenaren berri ematea (1/2016 kreditua gaitzea eta 2/2016 kreditu gehigarria).

<<Aurrekontu EGONKORTASUNERAKO HELBURUA BETETZEARI BURUZKO KONTU-HARTZAILETZAREN EBALUAZIO-TXOSTENA¹

(1/2016 Kreditua eta 2/2016 Kreditu Gehigarria gaitzeko espedientea)

1/2016 KREDITUA eta 2/2016 KREDITU GEHIGARRIA GAITZEKO espedienteak onartzeari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikuluekin bat etorritz, igortzen dut hurrengo

TXOSTENA

LEHENENGOA. Aurrekontuak eta Tokiko Erakundeen gastu eta sarreretan eragiten duten gainerako esku-hartzeak eratu, onartu eta gauzatzeko garaian Aurrekontu Egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko printzipioei jarraituko zaie, koherentea dena Europako araudiarekin, Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 3., 4., 11., 12. eta 13. artikuluetan, eta Arabako Tokiko Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 1., 2. eta 3. artikuluekin bat etorritz.

Herri Administrazioen Aurrekontu Egonkortasun modura ulertuko da egiturazko oreka-edo superabit-egoera. Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11.3 eta 11. 4. artikuluetan adierazten dena betetz, Tokiko Erakundeek ezin izango dute egiturazko defizitean erori, berau zikloko defizit doitu gisa (hau da, ezohiko eta aldi baterako neurriak kenduta) ulertuta. Horrenbestez, aurrekontuari dagokionez oreka- edo superabit-egoera izan beharko dute.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluan ezartzen denez, gastu zenbakarriaren aldaketak ezin izango du Espainiako ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentzia-tasa gainditu. Gastu zenbakarri modura ulertuko dira hauek: erabilera ez-finantzakoak, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren terminoetan definituta, zorraren interesak kanpo utzita; Europar Batasunetik edo beste herri administrazio batzuetatik etorritako helburu jakin baterako funtsen bidez finantzatutako gastuaren zatia eta finantzaketa-sistemekin lotuta egindako transferentziak. Gastuaren araua kalkulatzeko erreferentzia-tasa Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak argitaratuko du, Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12.3. artikulua arabera.

¹ Azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikuluekin bat etorritz, tokiko Kontu-hartzailetzak Aurrekontu Egonkortasunerako helburua betetzeari buruzko txosten bat taxutuko du, modu independentean igorriko dena eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bategineko 177.2. artikuluan aurreikusten diren dokumentuetara gaineratuko dena.



Finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete egin beharko da, halakotzat ulertuta defizit eta zor publikoaren mugen barruan oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena.

BIGARRENA *Legeria aplikagarria hauek baldintzatuta dago;*

— Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 3., 4., 11., 12. eta 13. artikulua.

— Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzeko azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikulua.

— Arabako Tokiko Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Araua.

HIRUGARRENA. *Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzeko azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16. artikuluko 1 atalean in fine eta 2. atalean xedatzen denez, Tokiko Kontu-hartzaileak txostena aurkeztuko du Udalbatzan Tokiko Erakundearen nahiz hartako organismo eta erakunde mendekoen egonkortasun-helburua betetzeari buruz.*

Txosten horrek izaera independentea izango du eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen testu bategina onartzeko martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuaren 177.2. artikuluan aurreikusten diren dokumentutara gaineratuko da.

Tokiko Kontu-hartzaileak egindako kalkuluak eta burututako doikuntzak zehaztu beharko ditu bere txostenean, aurrekontuko gastu- eta sarrera-egoerei buruzko 1etik 9ra arteko kapituluetak datuak oinarritzat hartuz, Kontabilitate Nazionalako terminoetan definituta, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren arabera.

Kontu-hartzaileak erabilera ez finantzarioek Barne Produktu Gordinaren erreferentzia-tasa gainditzen ez dutela egiaztatu beharko du, behin zorraren interesak, administrazioen transferentzia finalistak eta finantzaketa-sistemekin lotuta egindako transferentziak kenduta.

Kontu-hartzaileak defizit eta zor publikoaren mugen barruan oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena ebaluatu egin beharko du, Europako Araudian eta Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritz.

LAUGARRENA. *Aurrekontu-oreka gastuen aurrekontuko 1etik 7ra arteko kapituluak eta sarreraren aurrekontuko 1etik 7ra arteko kapituluak alderatzean lortzen da. Aurrekontu egonkortasunerako helburua egiturazko oreka- edo superabit-egoera batekin identifikatuko da.*

Egonkortasunari buruzko printzipioa betetzen ez bada, Ekonomia eta Finantza Plan bat egin beharko da, Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 21. eta 23. artikuluetan eta Arabako Tokiko Erakundeen



Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7. artikuluan xedatuaren arabera.

AURREKONTU EGONKORTASUNERAKO HELBURUA BETETZEARI BURUZKO KONTU-HARTZAILTZAREN EBALUAZIO-TXOSTENA

Txosten hau 38/2013 Foru Arauko 7.5. artikuluan xedatua betez burutzen da.

Txostena eragin duen espedienteak:		Hasierako Aurreikuspen/ Kredituak Behin betiko Aurreikuspen/ Kredituak DR/OR
Onarpen-data		1/2016 Kreditua eta 2/2016 Kreditu Gehigarria gaitzea

Sarreren aurrekontua

1	1. kapitulua	450.600,00
2	2. kapitulua	31.230,98
3	3. kapitulua	256.175,35
4	4. kapitulua	996.404,67
5	5. kapitulua	21.606,53
6	6. kapitulua	
7	7. kapitulua	166.245,60
8	Guztira sarrera ez finantzarioak	1.922.263,13
10	Doikuntza positiboak (Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzailletza Nagusiaren eskuliburuaren arabera)	
11	Guztira sarrera ez finantzarioo dituak	1.922.263,13

Gastuen aurrekontua

12	1. kapitulua	745.100,38
13	2. kapitulua	609.709,96
14	3. kapitulua	312.779,70
15	4. kapitulua	9.769,80
16	6. kapitulua	657.427,05
17	7. kapitulua	
18	Guztira gastu ez finantzarioak	2.334.786,89
20	Doikuntza positiboak: Eragindako gaineratikoaz finantzaturako Obligazioak (gehiakuntza)	347.350,13
	Doikuntza positiboak: Gaineratiko orokorraz finantzaturako Obligazioak (kreditu gehigarria)	152.122,60
22	Guztira gastu ez finantzarioo dituak	1.835.314,16

Superabit / Defizit ez finantzarioa

23	Superabit (+) / defizit (-) ez finantzarioa (11 - 22)	86.948,97
----	---	------------------

Betetzen da (23. laukiko zenbatekoa 0 edo handiagoa bada)

Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 38/2013 Foru Arauko 7. artikulua erkin bat etorriz, hura Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeetan aplikatuz, jakinarazten da, txostena eragin duen espedientearen zehaztutako kalkuluen arabera, egonkortasunaren helburua bete egiten dela, behin Diru-



zaintzako gaineratikoaz finantzatutako gastuak doituta. Horrenbestez, Udalbatzan txostena aurkeztu behar da, finantza arloko iraunkortasuna bermatuz, aipatutako Foru Arauko 7. artikuluko 3. atalean ezarritakoaren arabera. Hala, aurrekontua aldatzeko espedientea igorri behar da, kontu-hartzaitza organoaren txostenarekin eta euskarri modura baliagarri den gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Tokiko Erakundeen arloan eskumena duen Sailera.

(Oharra: taula hau Arabako Foru Aldundiko aholkularitza ekonomikorako zerbitzuak 2016ko apirilaren 5ean igorritako "Egonkortasun eta Gastuaren Arauari buruzko kontu-hartzaitzaren txostena" izeneko Excel fitxategitik ateratzen da. Bertan barneratzen dira espediente hauek: 1/2016 Kreditua eta 2/2016 Kreditu Gehigarria gaitzea)

SEIGARRENA. Gastuaren araua kalkulatzeko gastu zenbakariaren aldaketak Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak argitaratutako Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentzia-tasa ez duela gainditzen egiaztatuko da.

2016eko ekitaldiko aurrekontua likidatzean zehaztuko da gastuaren arauari dagokion helburua egiaz bete den ala ez, partida bakoitza zer-nola gauzatu den ikusita.

ZAZPIGARRENA. Finantza iraunkortasuna bete den egiaztatzeko oraingo eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko ahalmena defizitari eta zor publikoari dagozkion helburuekin bateragarri direla egiaztatuko da.

Badira finantza iraunkortasunari so oraingo eta etorkizuneko konpromisotzat hartzeko zenbait gastu.

“Izogailua udaletxe zaharrean instalatzeak mantenuarekin lotutako gastuak ekarriko ditu hiru hiletik behin eta baita energia elektrikoaren kontsumoari dagozkion berezko gastuak ere”

ZORTZIGARRENA. Horri dagokionez, lortutako emaitzaren berri eman behar da:

Proposatutako aldaketak, alde batetik, sarrera-egoerei buruzko VII. kapituluko diru-laguntza finalistekin eta, beste alde batetik, gastu orokorretarako diru-zaintzaren gaineratikoarekin finantzatzen dira.

Aurrekontu egonkortasunari dagokionez, diru-laguntzekin gastu-egoerari buruzko 6. kapituluko gastuaren zati bat finantzatuko litzateke. Beste zatia diru-zaintzako gaineratikoarekin finantzatuko litzateke. Horrenbestez, 38/2013 Foru Arauko 7.5. artikuluekin bat etorriz, zenbateko horretan doituko litzateke eta, horren ondorioz, ez luke egonkortasunean eragingo.

Haatik, finantza iraunkortasunaren helburua betetzeari dagokionez, oraingo eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko ahalmena defizitari eta zor publikoari dagozkion helburuekin bateragarri diren ikusiz egiaztatu behar dena, kontu-hartzaitza honek espediente honetan aipatzen den inbertsioak finantza iraunkortasunean eragina izango duela jakinarazten du:

“Izogailua udaletxe zaharrean instalatzeak mantenuarekin lotutako gastuak ekarriko ditu hiru hiletik behin eta baita energia elektrikoaren kontsumoari dagozkion berezko gastuak ere”

Egokitzat jotzen da txosten hau Udalbatzari jakinaraztea, inguruabar hori adieraziz. Artziniegan, 2016ko apirilaren 5ean. Kontu-hartzailea.



Alkatea: Zerbait esan nahi duzue?

Ascension Hormazabal Meabe: igogailuaren obrari dagokionez kasu honetan ere.

Arkaitz San Jose Martinez: eraikin berekoa ezta? hau da, bat da, gastu arruntean hasiera batean aurrekusi zena, igogailuaren mantenuari dagokion gastua.

Ascension Hormazabal Meabe: Gastuaren arauari eta egonkortasunari so txosten hau aldekoa da, baina iraunkortasunari so ez, gastu arrunta ekarriko baitu.

Alkatea: Besterik?

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

7. 2016ko lehen hiruhilekoko egikaritze-aurrekontuaren berri ematea.

Alkatea: beno, hori duzue dokumentazioa. Zerbait galdetu nahi baduzue.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

8. 2016ko lehen hiruhilekoko ordaintzeko batez besteko epeari buruzko txostenaren berri ematea.

Alkatea: ordaintzeko batez besteko epea 1,82 egunekoa da. Ez?

Ascension Hormazabal Meabe: bai

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

9. Udal kudeaketaren kontrola

• Joseba Vivanco Retes: Nik banuen bat. Facebook orrialdea erabiltzerakoan udal gobernua erabiltzen duen irizpidea jakin nahi genuen, izan ere, Udalak jartzen dituen zenbait informazioren inguruan jendeak oharrak egiten ditu, batzuetan erantzunak jasotzen dira eta beste batzuetan, bertan jartzen dena zalantzan jartzen dutenetan, ez da erantzunik jasotzen. Horrenbestez, gobernu taldeak erantzuteko edo ez erantzuteko irizpideren bat erabiltzen duen jakin nahi genuen. Hots, hasiera batetik, funtzionamenduan jartzen denean adierazten bada ez direla... ez dela joan-etorriko bitartekoak, baina ez dugu hori ikusi, batzuetan bai eta beste batzuetan ez eta, horrenbestez, zein irizpide erabiltzen den jakin nahi genuen. Gure ustez, norbaitek iritzi bat jartzen duenean edo zerbait argitzeko eskatzen duenean, beti erantzun egin beharko litzateke, baina tira.

Alkatea: Egia da, batez ere, informazioa emateko dela. Eta zenbaitetan oharra egiten dira, eta galderak ere bai, eta irizpideari dagokionez, guk erantzutea ezinbestekoa dela eta erantzuna eman behar dela uste dugunean erantzuten dugu. Beste batzuetan oharrak egiten dira soilik, eta horiei ez zaie erantzuten.

Joseba Vivanco Retes: Orduan ez dago irizpiderik? Hots, erantzuna emateko ez da irizpiderik erabiltzen. Batzuetan bai eta beste batzuetan ez.

Alkatea: bai, bada irizpide bat. Merezi duenean soilik erantzuten dugu, erantzun egin behar dela uste dugunean.



Joseba Vivanco Retes: nire ustez, logikoki, sare horiek edo informazio-mekanismo horiek jendearen eskura jartzen dituzenez, WhatsApp aplikazioaren gaia bezalaxe, dena den WhatsApp aplikazioarekin ohartarazi zen hasieratik joanekoa dela soilik bestela aski korapilatsua izan baitaiteke, baina, kasu honetan, "ongi ala gaizki datorkit" irizpidearen baitakoa izatea, ez dakit bada. Azkenean, partaidetzaren kontuarekin beti hankamotz geratzen garela uste dut. Bai, baina noraino...

Alkatea: Facebook ere ez da bitarteko bakarra. WhatsApp aplikazioaz gain, helbide elektronikoak ditugu, erregistroa bera ere bai.

Joseba Vivanco Retes: baina logikoena joan-etorrikoa izatea da, eta irizpide bat erabiltzea.

• Arkaitz San Jose Martinez: noranzko bakarreko informazioekin jarraituz, azken osokoa ez, baina aurrekoetan bilkura bat deitzeko premia errepikatu dut, edo eman nahi zaion formatua, ez informatzeko soilik, izan ere, informazioa ematea soilik, nire ustez, erabiltzen diren bideak ez dira aski, baina ikastetxera arteko obren gaiari buruz jendeak egin ditzakeen ekarpenak jasotzeko. Espaloiena eta gainerakoa. Izan ere, azkenean, gaizki-ulertzeak, eztabaida paraleloak eta kontsulta nahiz erantzun partikularrak ematen dira. Nire ustez, hasiera batetik egin izan balitz goiz batzuetan han beheran giro petrala saihestuko litzateke, batzordean ere aipatu nuen, uste dut guztion koordinazioaren alde egin zitekeela ikastetxerako bidea seguruago izan zedin..., izan ere, azken batean, gauza batzuk egin dira, hori argi dago, baina esandakoa, trabak, haserreak eta halakoak sortu ondotik. Bada, osoko ezberdinetan esan egingo nuela ere adierazi nuenez, gaur berriro diot. Uste dut, zuhaitzen kontuarekin nahasmen handia izan zela, haurren eskolako zonalde osorako sarbideak orain nola dauden eta horren guztiorren inguruan, niri ere, partikularki, eragiten baitit, izan ere, guztia dago solte, orgatxoen kontua zaildu egiten da, ez dakit. Ziur badirela nik ikusten ez ditudan gauzak, eta ziurrenera auzoetako bizilagunek ekarpenak egin ditzakete. Orain WhatsApp bidez komunikatu duzue datorren astean errepide nagusia itxi egingo dela. Ez litzateke une txarra adierazteko, begira, ideia bat besterik ez da, ez naiz esaten ari nire ideiak edo edozeinek emandako ideiak bilkuran ateratzen direnak baino baliagarriagoak direnik, baina, nire ustez, guztion artean bideak seguruagoak izatea lor dezakegu jende boluntarioa egonik, bada, sarrera- eta irteera-orduak koordinatuz. Suposatzen da obra baten erruz oinezkoen sarbidearen zati bat oztopatzen duzunean obra beraren alboan antzeko beste espazio bat gaitu behar duzula oinezkoentzat, hau da, oinezkoek izan beharko lukete lehentasuna eta, uste dut, on litzatekeela halako kontuen inguruan hitz egitea eragindako guztiekin.

Alkatea: hitz egin dugu gai horri buruz noizbait. Ulertzen dut jendea desatseginez egotea, une jakin batzuetan jendea haserretu egin daitekeela uste dut, obrak desatseginak baitira, ezta? obrak desatseginak dira. Gu informazioa ematen saiatzen ari gara, kontuan izanik obran ere izaten direla ustekabeak eta zenbaitetan uanean bertan hartu behar dira neurriak. Errepidearena aipatu duzu eta astelehenean egongo den eragozpen bat izango da hori, eta ahal den neurrian, obrak sorrarazten dituen kalteei buruzko informazioa ematen ari garela eta jendea jakinaren gainean mantentzen saiatzen ari garela uste dut. Egia da, noizbait, eskola-ordutegian egon dela arazorik ikastetxerako sarbidean. Guk maiz hitz egin dugu Foru Aldundiarekin nahiz enpresa kontratistarekin eskatzeko arren goizeko bederatzi eta erdietan (09:30) nahiz arratsaldeko lau eta erdietan (16:30) ikastetxeari eragiten dion zonaldean bederen jarduerarik egon ez dadin, eta egon behar bada ahalik eta kalte gutxien sorrarazteko. Baina, halere, badakit noizbait gertatu dela.

Arkaitz San Jose Martinez: Bai, ondo da, baina, azkenean, bakoitzak modu indibidualean egingo dio aurre egoera horri, eta uste dut guztia koordinatuz gero, bada, emaitza hobeak lor daitezkeela. Besterik gabe.

Alkatea: baduzue beste ezer?

• Joseba Elejalde Ribacoba: bai, nire galdera gobernu taldeari nahiz EH Bildu taldeari dago zuzendurik, martxoan akordio bat onartu zen Udalbatzan, Udalhitz hitzarmenaren negoziazio kolektiboari dagokionez, 2016. urteko lan-baldintzak onartzeko akordioaren alde bozkatu zen Udalbatzan. Pentsatzen dut hala gobernu taldeari nola Bildu taldeari, oposizioari, idazkariak txosten bat helaraziko ziela, Osoko hartan nik aipatu nuena, eta joan den hileko Osokoa ere aipatu nuena. Nik, martxoan, puntu hori mahai gainean uzteko eskatu nuen, lehen puntua, ekoizpenagatik % 0,6ko igoera barneratzen duena, legearekin bat zetorren zalantzan jartzen



bainuen zinez. Une hartan, geldialdi bat, hala EAJ taldearen aldetik nola BILDU taldeko bozeramailearen aldetik, gai-zerrendan puntu horrekin jarraitzeko erabaki hartu zen, eta onartu egin zen. Idazkariaren txostenak arrazoa ematen dit eta, horrela, adierazten du bosgarren puntuan honi dagokionez: “ordainsari oinarritzko eta osagarrien soldata-masaren modernizazio eta produktibitatearako % 0,6ko funtsa, 2016ko ekitaldiaren barruan aurrekontuaren arabera zilegi denean gauzatzeari dagokionez ez du lege-babesik”. 2016ko martxoan Udalbatzan hartutako akordio horrekin zer egingo den jakin nahi nuke.

Alkatea: errekurritu egin dute. Beraz, egin beharko dena...

Joseba Elejalde Ribacoba: barkatu, gauza bat esango dizut. Egun hartan zehatza izan nintzen, zuk egun hartan hemen eztabaidatu genuena hartzen baduzu, nik txostena eskatu nuen, Idazkari eta kontu-hartzaileak zera erantzun zidan “ txostena badut, baina gaur goizean amaitu dut, eta 19.2. artikuluan % 1eko igoera aurreikusten da eta xedapen gehigarria aparteko ordainsaria berreskuratzeari buruzkoa da, baina produktibitatearen osagarriarenak ez du lege aldetiko babesik”. Idazkari eta Kontu-hartzaileak eman esana. Horri nik zera erantzun nion: “esaten dugun bakarra da, guk aurkako botoa emango dugula, eta arrazoi hori dela medio, txostena egitea eskatzen dugula. Eginda badago, helaraztea nahi dugu, osoko bilkuran azkenean gauzatu ezingo den ebazpen bat ez bozkatzeko eta langileekin arazo bat ez sortzeko”. Zuk erantzun zenidan: “bada guk ez dugu txostenaren berri izan”. Nik erantzuten dut: “Nik mahai gainean utziko nuke puntu hori argitu arte”. Geldialdi bat egin, berriro sartu eta bozkatu egin da.

Ascension Hormazabal Meabe: edozein kasutan, gauza bat. Nik egun hartan txostena berandu egin nuen, baina informazio-batzordean esan nuen.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik egun hartan aipatu nizuen eta galdetzen dudana da zer egingo den Estatuko zerbitzu juridikotik errekurritu dutela alde batera utziz.

Alkatea: ez da ordaindu. Are gehiago, ikusten dudanez, puntu osagarri horrek oraindik ez du zuzkidurarik aurrekontuan. Oraindik ez da gauzatu akordio hori. Eta oraintxe Estatuko abokatuaren errekurtsio bat iritsi da.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dago gauzaturik, baina onartuta dago. Horregatik ari naiz galdetzen zer egingo den. Ea...

Alkatea: bada, ez dakit, izan ere, agian bertan behera uzteko eskatzen du Estatuko abokatuak. Ez dakit, irismena ere ez dakit. Espedientea eskatu du demanda-idatzia egin ahal izateko. Horrela dago.

Joseba Elejalde Ribacoba: Azkenean, errekurrituta badago, epaitegira bagoaz gastu bat ekarriko digu horrek, pentsatzen dut, Idazkari eta Kontu-hartzaileak zuzenbidearekin bat ez datorrela, legearekin bat ez datorrela, dioen txosten bat egin digularik. Bada, ez dakit zeren zain egon behar garen. Hau da, agian, elkartu eta Udalhitz hitzarmenaren negoziazio kolektiboari edo Udaleko edo Administrazioetako langileen 2016ko lan-baldintzei dagokienez Udalak egiaz onartu beharrekoa onartu beharko dugu, goitik arreta noiz emango diguten zain egon gabe edo beste juizio baten sartu gabe, izan ere, azken batean beti herritarra da galtzen duena.

Alkatea: beno, demanda-idatziaren zain egon beharko gara, ezta?

Joseba Elejalde Ribacoba: azkenean abokatuei ordaindu egin beharko zaie eta gainerakoa ere ordaindu egin beharko da guztiok zerga modura emandako diruarekin.

Alkatea: demanda-idatziaren zain egon beharko gara. Beno, besterik?

Eta jorrazteko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da aipatu eguneko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu izanik. Eta horren guztiorren gainean, fede ematen dut.